

Nafar hizkuntza

euskera@diariodenavarra.es

BEATRIZ CHIVITE EZKIETA OLERKARIA

“Olerkiak idaztea, argazkiak ateratzea bezalakoa da”

Sei urte pasa dira idatzi zuenetik, Pekinen Filologia Txinatarra ikasten ari zela, eta orain ‘Pekineko kea’ olerki-lana kaleratu du. Aurretik ‘Metro’ argitaratu du, Londresen idatzita. Bere hurrengo liburua, ‘Biennale’, Venezian sortu zuen. “Hiriak nire musak dira”, esaten du Chivitek.

NEREA ALEJOS Iruñea

Noraezean. Horrela deitzen da *Pekineko kea* liburuaren lehen olerkia. Sei urte pasa dira idatzi zuenetik, “baina oraindik ere zentzu handia dauka niretzako”, esaten du Beatriz Chivitek (Iruñea, 1991). Hain zuzen, bere bizi-tzaren laburpena izan daiteke: “Noraezean sentitzen naiz, alde batetik bestera, pixka bat galduta eta beti ongi etorri eta agur malkoen artean”, esaten du. Aurretik *Metro* argitaratu du, Arabako Foru Aldundiaren eskutik, 2014eko Ernestina de Champourcin sariaren irabazlea. Udazkenean *Biennale* liburua argitaratuko du, iaz Blas de Otero saria irabazi zuena. Beti atzeritik idazten du: azken hamar urteotan, hainbat lekuetan bizi izan da, hala nola Londresen, Venezian, Hong Kongen edo Taiwanen. Sei hizkuntzatan min-tzatzen da.

Duela bost urte, Iruñeko Udala-ren poesia lehiaketa irabazi zenuen *Pekineko kea* lanarekin. Benetako saria poemategi hau argitaratuta ikustea izan da? Bai. Liburu hau eguneroko bezala idatzi nuen, Pekinen nengoela ikasten. Orain irakurtzen ari naizenean, Pekinen bizitakoari buruz gogoratzen naiz. Nire ustez, bost urte hauetan asko aldatu dut, baina mamia hor dago. Nire-tzako Pekin izan zen hori, momentu funtsezkoa, Ekialdeko literatura ikasten ari bainintzen, eta eragin hori nire beste olerki liburuetan ere ikusten da. Beraz, *Pekineko kea* nire lehenengo liburua da, baina ondorengoak zerbait hartu dute honetatik.

Zergatik sentitu zenuen poesia idazteko behar hori? Eta zergatik euskaraz?

Alde batetik, beti sentitu naiz beste idazleen musa. Nire gurasoak idazleak dira, nire lehenengo mutil-laguna baita ere... Pekinen nengoela, aldaketa bat somatu nuen nire barruan: musa izatetik idazle izatera pasanin-tzen. Nire lagunekin ingelesez eta italieraz egiten nuen, nire gurasoekin gaztelaniaz... Eta gero, unibertitatean, txinatarrez. Beraz, euskara ahazten ari nintzen. Jada hamar urte daromatzat Euskal Herritik kanpo

eta euskara nire buruarekin hitz egiteko beharra sentitu nuen. Eta poesiak hori eman zidan: bakardadean nengoela, nire buruarekin euskaraz hitz egiteko ahalmena.

Orduan, euskara zure hizkuntza literarioa da?

Bai, hori da. Nire ahots poetikoa euskaraz aurkitzen dut, nahiz eta ez dut euskaraz asko hitz egiten. Nire barneko ahotsa bihurtu da. Ni ez naiz oso nazionalista, baina nire kultura, nire hizkuntza eta nire iragana ere mantentzeko beharra sentitu nuen. Euskaraz idaztea ariketa bat bezala hasi zen eta orain behar bat bihurtu da.

Ze momentuetan sortzen zaizu poesia idaztearena?

Boladaka idazten dut. Kanean baldin banago eta bapatean hiru edo lau irudi etortzen baldin bazaizkit burura, telefonoan edo orri batean idazten ditut azkar-azkar, eta gero agian lantzen ditut. Nire idazkera oso arina da. Noski, gero zuzenketa prozesu bat dago. Batzuetan ez dut batere idazten, agian sei hilabetetan ez dut ezer idazten, eta gero hilabete bete batean liburu oso bat idazteko gai naiz. Hau da, jaso ditudan irudi guztiak nire buruan landu ondoren botako banitu bezala.

Estiloaren aldetik, olerkiak badute Japoniar haikuen kutsua.

Bai, oso poema laburrak dira, arinak eta azkarrak. Tradizioz, haikuak edo Txinako poesia naturaren aldaketen berri ematen

dute. *Pekineko kea* hiriaren aldaketei buruzko dokumentazioa da, baina baita ere nire aldaketa pertsonalei buruzkoa. Haikuak motzak dira, baina zuzenki joaten dira puntura, aldaketa momentu hori harrapatu nahian. Hasieran, *Pekineko pintzeladak* deitza pentsatu nuen, horrelakoak direlako: Ekialdeko artearen marrazki edo tinta txinatarren moduan egindakoak. Baina kutsadurari buruzko olerki asko daudenez, eta sonoritatearen aldetik *Pekineko kea* politagoa denez, orduan izenburuz aldatzea erabaki nuen.

Zure bigarren liburua, *Metro*, Londresen idatzi zenuen.

Niretzako, hiriak musak dira, bertan ikusitako gertaerak, egoerak, irudiak eta pertsonaiak islatzen ditudalako. Batez ere hiri handiak gustatzen zaizkit: Pekin, Londres, Paris... Hiri haueko kaleetan hainbat istorio aurkitzen dituzu. Adibidez, *Metro* liburua Londreseko metroan idatzi nuen. Egutero 40-50 minutuko bidaia egin behar nuen eta han ikusten nituen pertsonaien buruan sartzen saiatzen nintzen, haien pentsamenduak edo istorioak imajinatuz. Metroan eserita idazten nuen, espia bat bezala. Olerkiak idaztea, argazkiak edo flashak ateratzea bezalakoa da. **Eta Venezian *Biennale* lana sortu zen.**

Penny Guggenheim museoan lan egin nuen eta gero *Biennale*. Beraz, *Biennale* arte munduari buruzko liburua da, eta baita ere nire belaunaldiaren bizimoduari buruzkoa. Atzerri-ra joan behar gara lan bila, gure lagunak sakabanatutak dauzka, familiarik oso urrun gaude... Orain *millennial* hitza oso modan dago, baina gurea ez da bizimodu erraza.

Iaz Hong Kong-en urtebete eman zenuen *Literatura eta Zinema Txinatarri buruzko masterra* ikasten. Hortik ere beste liburu bat atera daiteke?

Bai, liburu bat idatzi nuen, baina oraindik lantzen ari naiz. Hong Kong ez zitzaidan batere gustatu, oso hiri alienantea delako. Maila pertsonalean ere, etapa gogorra zen eta literaturan eta zineman errefuxiatu nintzen. Horren guzti ondorioz, olerki tristeagoak eta ilunagoak atera zitzaizkidan, ba-tzuk kapitalismoaren aurka.

Hainbat sari irabazi dituzu. Planteatu al zara literaturaren munduan buru-belarri aritzea? Momentuz, ez. Orain lan bila nabil. Batez ere, arte edo zineman munduan aritzea gustatuko litzaidake.

ESALDIA

“Nire ahots poetikoa euskaraz aurkitzen dut, nahiz eta ez dut euskaraz asko hitz egiten. Nire barneko ahotsa bihurtu da.”

‘PEKINEKO KEA’

Egilea: Beatriz Chivite Ezkieta
Argitaletxea: Pamiela
Orrialde kopurua: 96
Ale kopurua: 1.000
Salneurria: 13 €



Beatriz Chivite, *Pekineko kea* eskuetan duela, Iruñeko kafetegi batean.

JESÚS CASO

Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

agenda

Apirilak 18, asteartea

PAILAZOAK

Piramiden bila
4 urtetik gorako haurrendako
Patxin eta Potxin
Kondestable Civivoxa. 18:00. Sarrera: 3 euro (Kondestabla Civivoxean eta on-line)

Apirilak 19, asteazkena

HAURRENTZAKO LANTEGIA

Materiala berrerabiliz animaliak eraiki
Publikoa: 5 – 12 urte bitarteko haurrak
Ingurumen Heziketarako Museoa. 10:30 – 12:30. Izen ematea 010 edo 948 420100

Apirilak 20, osteguna

MAGIA

Hodei Magoaren magia
Milagrosako Civivoxa. 12:00. Sarrera librea*

Apirilak 21, ostirala

HAURRENTZAKO LANTEGIA

Taldean jolastu, lagundu eta birziklatu
Publikoa: 5 – 12 urte bitarteko haurrak
Ingurumen Heziketarako Museoa. 10:30 – 12:30. Izen ematea 010 edo 948 420100

ZINEMA

Nocturna, abentura magiko bat
Edozein adinetako ikusleentzat

Apirilak 22, larunbata

EUSKARAZKO JARDUERA

Walkman
Ganso & Cia konpainia
Juslarrocha Civivoxa. 18:00. Sarrera: 3 euro (Juslarrocha Civivoxean eta on-line)

ANTZERKIA

Itzalgune
La Piel antzerki-taldea
Gaztediaren Etxea. 19:00. Sarrera librea*

Argibide gehiago: 010 telefonoa • www.pamplona.es